

txintxarri

Urrea balio dutenei omenaldia

Senideengandik aitortza jaso dute Urrezko neskek taldea osatzen duten emakumeek, duela 60 urte hasitako bideagatik / 2-3

TXINTXARRI

Kontxako Bandera ere, zakura

Aiora Belartietia eta Nahia Goenaga herritarrak kide dituen Donostia Arraun Lagunak-ek denboraldi biribila egin du / 10

Biltegiko produktuen eskaintza egin diete merkatariek bezeroei eta erantzun ona jaso du ekimenak / 4

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetako bat herrian jokatu dute, 15ean / 5

Urtebete pasatxo agintean daraman udal gobernuaren jarduna kritikatu du EH Bilduk / 6

LOOPA plataformak arduratuta jarraitzen du osasun sistema publikoaren goerarekin / 7

LOTME elkarteak II. Mendi Lasterketa egingo du hilaren 29an; oroimenezkoa ere izango da / 11

Egitarau oparoa prestatu du Ostadar Ipar Martxa taldeak, 10. urteurrena ospatzeko / 13

UDAL EUSKALTEGIA - 2024-2025 ikasturtea

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK IRAILAREN 20 ARTE.

AURREZ AURREKOAK

Hiru ordutegi aukera
Txandaka aritzeko aukera guztietan
ONLINE - BOGA

AZTERKETEN PRESTAKETA

HABEren maila guztiak, A1etik C1era
A1 eta A2 mailak Euskaltegian bertan lortzeko dira.
OSAKIDETZA, IVAP, HEZKUNTZA, ERTZAINNTZA

INFORMA ZAITEZ

Diru-laguntza:

85% ikasle guztientzat
Eta deskontuak gazte eta langabetuentzat
10 kuotatan ordaintzako aukera

HABE diruz lagundua
LASARTE-ORIA
UDAL EUSKALTEGIA



C1
16-18 URTEKOENTZAT
35 EURO

Lasarte-Oriako UDAL EUSKALTEGIA (Bekokale bidea, 1) Tel: 943-36 16 21 - euskaltegia@lasarte-oria.eus BULEGO ORDUTEGIA: 08:30-19:00

Urrezko sei hamarkada

Omenaldi eder eta hunkigarria jaso dute Urrezko neskek haien ondorengoengandik, duela sei hamarkada urratzen hasitako bide oparo eta eredugarria eskertzeko. Herriko emakume kirolariei ate bat zabaldu izana aitortu diete: "Izan zinetelako gara eta garelako izango dira"

Maitane Aldanondo-Iñigo G. Sarobe Emakumeek kirola egitea egokitzen ez zen garaian, herriko emakume talde batek ATC saskibaloi taldea eratu zuen 1964ko irailean. Duela sei hamarkada urratutako bidea eskertzeko, haien ondorengoek omenaldi xume bat egin zieten hilaren 7an.

Argazkilariekin hitzordua 13:00etan zuten, baina orduaren aurretik denak bertan ziren. Santa Ana karkabako lokal barruan plantatutako mahaian geroagoko otordurako guztia atonduta, azken argazkilaria zain, kanpoan hitz eta pitz ari ziren kazetaria heldu zenean.

Sortzaileetako bederatzi sartu, eta buruan jarri ziren argazkilarako. Haien gainean zintzilik zegoena ere ateratzeko ohartzarazi zieten kameraren beste al-

dean daudenei, falta diren bi kideen erretratuak ere ager daitezen. Ez dute joan direnek hutsik egiterik nahi, ezta denborarekin batu direnek ere, beraz, bigarren argazki bat egin zuten haiekin. Barrez aritu ziren aurrean ziztuzten lauei begira, horrenbeste jakin-mina ulertuko ez balute moduan.

Isildu ziren kliskak eta beste-lako irudia egiteko kanpora bidean entzun zuten irten zen lehen kidearen harridura oihua. Ezustekorik ez zuten espero, are gutxiago, seme-alabak, ilobak edota bilobak zain izatea. Duela 60 urte egindako balentria hura gogoan duten gertukoak, izandako adorea omendu nahi dute-nak. Parez pare jarri ziren, omenduak atarian, eta senideak kalexkaren kanpo aldean. Zetorkiena aurreikusitako nahian ibili

ziren, marmarrean, eta zirrara agertzen hasi zen batzuen aurpegietan. Kris Alvarezek, mikroa eskuan, eman zien azalpena.

Herriko emakume kirolariei ate bat zabaldu izana aitortu zieten, emakumeek kirola egitea gaizki ikusita zegoen garaian elkartu eta saskibaloi talde bat osatzea "ez delako erraza". Alvarezek gogoratu bezala, kantxarekin batera, "plaza eta erdigunea" hartu ziztuzten eta ordutik ere "bidea egin" dute herriko hainbat eta hainbat ekimenetan parte hartuta, "beti umoretsu, beti sasoiko, ale bat ekartzen herria egiteko". "Eman duzuenagatik, transmititu duzuenagatik bagara garena".

Hunkitu ziren omenduak hitz horiek entzutean, baita malkoren bat lehortu ere; eta txaloeekin eta irrintzi batekin eskertu ziztuzten. "Izan zinetelako gara eta

garelako izango dira", biribildu zuen Alvarezek, atzean eta alboetan zituenak erakutsita. Ekitaldi xumea osatzeko, papelean jasotako bertsoak eman zizkiete Urrezko neskei, besarkada eta muxuekin batera. Beraien txokoa erakutsi zieten batzuei, urteotako oroigarritz bete, gainerakoek kanpoan solasean jarraitu bitartean.

"Poz-pozik" bazkaltzera

Alvarezek berak TXINTXARRI-ri kontatu dionez, omenduak eta senideak elkarrekin joan ziren zerbait hartzera Jalgi kafe antzokira. "Zoragarria izan zen dena, oso ondo atera zen. Lokaletik kalera atera zirenean eta bakoitzak bere familiako kideak ikusi zituztenez... Kristoren sorpresa izan zen, hunkigarria". Ospakizun eguna prestatuta zuten emakumeek baina ahaideen omenalditxoarena ez zuten espero eta "poz-pozik" joan ziren bazkaltzera.

Zumetatar ahizpen (Miren eta Manoli) lokalean bapo bazkaldu eta gero oroigarritxo batzuk banatu zizkieten elkarri. Osteen, eguneko bigarren sorpresa, urrezko emakumeetako hiruzpalauren emanaldia; umoretsua, nola ez. Gogotik barre egitearekin batera iragana gogoratzeko aukera izan zuten, izan ere, kide bakoitzak liburuxka pertsonalizatu bat jaso zuen, bakoitzari buruzko hitz eta bestelako oroigarri batzuekin.

Senideek abestutako bertsoak

Urrezko nesken senideek bertso pare bat idatzi eta, nola ez, kantatu egin zizkieten parean hunkituta izan zituzten protagonistei. Hauek izan ziren:

Sei hamarkada luzeek historia bat dakarte dozena neska elkartu eta talde baten parte egin zineten eta hartu erdigune eta txolarte ahalduz eder horren testigu dugu Lasarte.

Lagun talde aktiboa, zabalduz hamaika ate transmisioaren altxor eta martxaren diamante eredu zaituztegu eta nola ez, bihotzez maite gora las Chicas de oro zoragarriak zarete.



Kirolean sortutako harremana beste alor askotara eramán dute

Emakume gazte batzuek (18 eta 22 urte artean ziztuzten) ATC fabrika lan egiten zuten eta saskibaloi talde bat atera zuten, jokoaren ezagutzari eta baliabideei dagokienezan zerotik hasita. Entrenamenduz entrenamendu eta partidaz partida, maila oso txukuna izatera iritsi ziren, hiru urte geroagoko inaugurazio txapelketa irabazteraino.

Saskibaloian lau urtez jokatu zuten baina kirolak sortutako harreman estu eta sendo hori beste alor askotara eramán dute gaur egunera arte, sasoi eta umorez: inauteriak, Santa Anako parodia, Euskararen Maratoia... Denboraren joan-etorriak aldatu du taldea (hil egin dira bi kide eta bost "fitxatu" dituzte), baina ez euren arteko erlazioa eta ohiturak: astero elkartzan jarraitzen dute Zumetatar ahizpen lokalean, bizitzaz hitz egiteko.



Eskerreko irudian, ATCko jokalariek, partida bat jokatzen; eskuinekoan, duela bi urteko Euskararen 10. Maratoialdian parte hartzen. M. ALTUNA/TXINTXARRI





- 1- Pili Arruti
- 2- Ixabel Ubegun
- 3- Manoli Zumeta
- 4- Mari Karmen Mercero
- 5- Mertxe Altuna
- 6- Rosarito Etxeberria
- 7- Alitzane Bergara
- 8- Kontxu Sorrondegi
- 9- Milagros Arrieta
- 10- Shole Agirre
- 11- Ixlar Sorrondegi
- 12- Maribel Elosegi
- 13- Miren Zumeta
- 14- Malali Agirresarobe
- 15- Begoña Bergara
- 16- Lurdes Ubegun

Saskibalo taldea sortu zuten bederatzik emakumeei beste batzuk batu zaizkie denborarekin. Hilda dauden bi kideak ere gogoan izan dituzte euren erretratuak jarrita. TXINTXARRI



ATCko emakumeen seme-alaba, iloba eta bilobak bertaratu ziren omenaldira. Ekitaldi benetan hunkigarria izan zen Santa Ana karkaban bildutako guztientzat. TXINTXARRI

Merkatarien eskaintzak aprobetxatu dituzte

Denboraldi berriari hasiera eman aurretik, Stock Azoka aurrera eraman du Aterpea merkatarien elkarteak. Horren bitartez, biltegiko produktuen eskaintza egin die bezeroei. Izan dira maukak baliatu eta erosketak egitera animatu diren herritarrak

Txintxarri

Askotariko jarduera eta deialdietan parte hartzeko aukera izan zuten lasarteoriarrek iragan asteburuan, hilaren 6, 7 eta 8koa. Eskaintza zabal hori, ordea, ez zen oztopo izan herritarrek Aterpeak deitutako Stock Azokan erosketak egitera joateko. Denboraldi berriari ekin aurretik, biltegiatutako produktuen eskaintza zabala egin dute aipatu egitasmoan parte hartu duten negozioek.

Merkatarien elkarteko kide diren hamabi negozioi parte hartu dute jardueran. Hauek dira horiek guztiak: Urruzola mertzeria; Imagine jantzi denda; Olmi mertzeria; Mabel Moda; Iturbe zapata denda; Alba moda; Leder oinetakoak; Nogues moda; Lilura liburudenda; Deco 75 Textil Hogar; Arregi elektrizitatea eta Bote Tattoo.

Stock Azokaz gain, egitasmoaren barruan beste bi deialdi ere aurrera eraman dituzte. Alde batetik, hilaren 6an (10:30etik 20:00etara) eta 7an (10:30etik 14:00etara) Flash Day egunak izan ziren Bote Tattoo. Horretaz gain, Patricio tabernak ostiralean, hilak 6, koktelak eskaini zituen DJ batek musikaz giroten zuen bitartean; 17:00etatik 21:00etara izan zen hori.

Egitasmoak zein erantzun izan duen jakin eta artikulatu hau osatzeko asmoz, parte hartu duten bi negozioekin hitz egin du TXINTXARRI aldizkariak: Urruzola mertzeriarekin eta Bote Tattoorekin. Pozik agertu dira eta balorazio positiboa egin dute. Ondoko bi zutabetan irakur ditzakezue horien testigantzak oso-osorik.



Urruzola mertzeria. TXINTXARRI

Mahuka luzeko pijamak

Ostegunekoa izugarria izan zen, asko-asko saldu nuen. Asteburuan eguraldiak eutsiko ziola ikusirik, ostiral eta larunbaterako aurreikuspen bat egin nuen, baina ez zen bete; bi egun horiek eskasak izan ziren salmentei dagokionez. Nik uste kontuan hartu behar dela baita ere, bestelako hitzordu eta deialdiak ere bazeudela egun horietan; horrek ere eragina izan duela pentsatzen dut.

Aitortu behar dut eskaintza oso onak egin ditudala; hainbat produktuetan 2x1ekoa eta gainerako guztia % 50ean.

Biltegiatutako produktuak saltzea zen asmoa, beraz, hori lortzeko eskaintzek onak izan behar dute.

Horrez gain, kanpainari ematen diogun zabalkundea ere garrantzitsua da. Gainerako merkatariekin batera egiten dugunaz gain, gurea ere egiten dugu. Afixak itsatsi ditugu herrian zehar, eta sare sozialetan ere jakinarazi dugu behin eta berriz. Indarra jartzen dugu horretan ere, lagungarria dela uste baitugu.

Udazkenari begira erabil daitezkeen produktuak saldu dira gehien.



Bote Tattoo. TXINTXARRI

Tatuaje eta piercingak

Oso pozik nago erantzunarekin; sekulako jende pila izan dugu estudioan. Pentsa, asteburuan egiteko denborarik eman ez digun tatuajeak egiten ari gara egunotan. Piercing-ak egiteko aukera ere eskaini genuen, eta hor ere bezero asko izan ditugu.

Aldez aurretik erabakitako diseinu batzuen eskaintza egin genuen, bezeroek horietatik gustukoak zituztenak aukeratu dituzte tatuajea egiteko.

Patricio tabernarekin batera aurrera eraman genuen gure Flash Day-e, eta arrakastatsua izan da oso; mugimendu handia izan dugu.

Estudioaren 3. urteurrenarekin bat egin du gainera hitzorduak, eta horrek are hunkigarriagoa egin du asteburuko hitzordu hori. Pozik nago, oso. Denbora batera berriz ere horrelako egitasmo batean parte hartzeko aukera sortzen bada, zalantzarik gabe egingo dut horren alde.



Biyak Bat egoitzako kideak eta udal ordezkariak egitaraua aurkezten. TXINTXARRI

Adinekoen omenez, festa

Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramango du Biyak Bat egoitzak, udalarekin elkarlanean, urria hastearrekin batera; helduen gozamererako ekimen sorta aurkeztu dute

Txintxarri

Jarduera sorta ederra iragarri du Biyak Bat zahar egoitzak urri hasierarako; Adinekoen Omenaldi Astea antolatu du udalarekin elkarlanean, eta horren gaineko xehetasunak aurkeztu ditu, prentsaurrean.

Adineko Pertsonen Nazioarteko Egunean ekingo dio Biyak Batek zortzi eguneko egitarauri, ohi bezala, bandera igoerarekin. Urriaren 1ean izango da hori, eguerdian, eta arratsaldean, berriz, 16:00etan, tute eta mus txapelketan arituko dira. Hurrengo egunean, urriaren 2an, toka eta igel bote jokoak iragarri dituzte 16:00etatik aurrera, eta musikaz gozatzeko tartea izango dute gero. Los Gavilanes mariatxi taldeak emanaldia eskainiko du kultur etxean, 19:00etan. Ekimen horiez gain, Jokin Goenaga akordeoi jotzaileak emanaldi bat emango du Atsobakar egoitzan.

Urriaren 3an, berriz, bingo txapelketa aurrera eramango dute. Jubilatuen etxean izango da, eta partidak amaitu ostean, 20:00etan, sari banaketa egingo dute. Egun bat geroago, urriaren 4an, *Ondo ibili* ibilaldia deitu dute. 11:00etan abiatuko dira Okendo plazatik, eta ostean, eguerdian, indarrak berreskuratu asmoz, luntxa egingo dute Mercero aretoan. Arratsaldean, aldiz, 17:00etan bideo foruma izango da Biyak Bat egoitzan.

Ariketa fisikoari eutsiz, urriaren 5ean ibilaldi neurtua egingo dute. Bertan parte hartzeko baldintza da aurrez izena ematea; egoitzan egin daiteke hori, hilaren 12tik 26ra bitarte, 10:30etik 12:30erako ordutegian.

Meza eta urrezko ezteiak

Meza izango da urriaren 6ko lehen jarduera. 12:30ean aurrera eramango dute, San Pedro elizan. Hori amaituta, urteroko bazkaria egingo dute Michelingo kirol gunean. Ekimen horretan parte hartzeko ere inskripzioa egin beharko dute interesa dutenak. Zahar egoitzara joan beharko dute horretarako, hilaren 16tik 20ra bitarte.

Gimnastika erakustaldiarekin hasiko dute eguna urriaren 7an, kiroldegian 10:00etan. Arratsaldean, berriz, 17:30ean erretiratuen egoitzan musika emanaldia iragarri dute.

Azken ospakizun eguna (urriak 8) ere jardueraz bete izango da. 10:40ean, egoitzatik kalejiran abiatuko dira, eta meza izango dute gero, 11:00etan. Eguerdian, opariak banatuko dizkiete urrezko ezteiak betetzen dituzten egoitzako bazkide diren senar-emazteei. Hamahiruk jasoko dute aurten aintzatespena, eta horiek berak joango dira gero bazkaltzera Herriko Etxeara. Eguna eta ospakizun asteari amaiera emateko, dantzaldia izango da Biyak Bat egoitzan bertan, 16:00etan.



NEURE KABUZ
AIZPEA AMAS

Udako balantzea

Lasarteoriatarak, ongi etorriak etxera. Espero dugu zuen oporre ahali eta zuku gehien atera izana. Udan herria zaintzen geratu garenok uste dugu lan txukuna egin dugula, eta horren lekuko aparteko gertakiririk ez dela izan. Edonola ere, hemen doakizue balantzea.

Oro har, jende gutxiago ikusi dugu herrian, batik bat abuztuan. Bertan geratu garenok eskertu dugu aparkatzerako garaian; ohi ez bezala, aparkaleku bat topatzeko ez baitugu aparteko zailtasunik izan. Irekita geratu diren taberna bakanetako terrazetan ere mahai eta aulki libreak aurkitzea nahikoa erraza izan da, baliteke eguzkiak edo hobe esanda haren absentiak eragina eduki izana.

Edozein kasutan, zuei eragin ez dizueten aferatxo batzuk eduki ditugu. Lehenengo puntua: gure herritar zororen bati gaixo jartzea bururatu bazaio, arratsaldetan anbulategia itxita eduki dugunez, Hernanira joan behar izan du, baina bertan kosta egin zaio medikua topatzea. Garrantzitsuzat jotzen dugu puntu honi lehenbailehen heltzea ezustekoak saihesteko.

Bigarren puntua: herritar burugaberen batek udan igerilekura joateko nahia izan badu, (aipatutako eguzki absentiarengatik Urrietako aukera baztertuta) hilabete erdialdera arte beste norabait joan behar izan du, eta are gehiago, ia bi aste horietan itxita kointziditu dute Buruntzaldeko igerilekuek.

Hirugarren puntua: herritar eroren bati irakurtzeko grina piztu bazaio, liburutegia ere itxita topatu du abuztuan. Badakigu uztailan irekita egon dela, goizez (baita astean behin arratsalde ere) baina ulertzekoa da ordutegi horretan zailtasunak eduki izana abuztuko liburuak hartzeko.

Hortik atera dugun ondorioa da zerbitzuak nabarmen murriztu direla udan. Beraz, formularen bat topatzeko beharra ikusi dugu horiek indartzeko, eta argi dugu langileen oporraldia ukiezina dela. Proposamenik?



TXINTXARRI

Izena emateko epea ireki dute

Jantzi tradizionalen ikastaroa antolatu dute aurten ere Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak, elkarlanean. Jakinarazi dute zabalik dagoela izena emateko epea, tokiak agortu arte (hamabi lagun, gehienez). Lehen saioa urriaren 1ean egingo dute, asteartearekin, Sexuen Elkarbizitzarako Emakumearen Zentroan, 15:30etik 17:30era. Urriko eta azaroko astearte eta ostegunetan elkartuko dira. Aipatu ikastaro horretan izena eman eta informazioa eskuratu nahi dutenek kultura@ttakun.eus helbide elektronikora edo 695 78 53 89 telefono zenbakira (WhatsApp) idatzi behar dute.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, hastear

Hiru hilabete iraungo ditu eta final handia abenduaren 14an jokatuko dute zortzi bertsolarik, Donostiako Illunben. Final zortzirenetako bat gure herrian jokatuko dute igande honetan, hilak 15, 17:00etan, Manuel Lekuona Kultur Etxean

Txintxarri

Asteburu honetan (hilak 14 eta 15) hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, Urretxun eta Lasarte-Orian jokatuko dituzten final zortzirenetako saioekin. Hiru hilabetez ariko dira kantuan 48 bertsolari eta horietatik zortzi sailkatuko dira final handira: Donostiako Illunben izango da, abenduaren 14an.

Pandemia tarteko, bost urteko hutsunearen ostean jokatuko dute berriro Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Urte berezia da aurten, lurraldeko lehen bertsolari eskolaren (Almen, Eskoriatzakoa) 50. urteurrena gogoratuko dutelako. Hori horrela izanik, herri horretako Apotzaga auzoan elkartu ziren antolatzaileak hilabete hasieran. Gipuzkoako Bertsolari Elkartearen koordinatzaile Mikel Artola: "Apotzagan elkarrekin aukera ona eman digu bertso eskolek azken 50 urtetan izan duten garrantziaz hausnartzeko; gaur egun ez dago eskolarik gabeko txapelketarik".

Saio guztietarako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atari digitalean eros ditzakete horietara bertaratu nahi dutenek. Helduen txartelek 12 euro balio dute, gazteenek (6 eta 18 urte artekoak) 8, eta, Bertsolari Elkartearen bazkideenak, 10.



Eskoriatzan egin zuten txapelketaren aurkezpen jaia antolatzaileek. BERTSOZALE

Herriko final zortzirena, 15ean

Txapelketako bigarren final zortzirena jokatuko dute igande honetan, hilak 15, kultur etxean. 17:00etan hasiko da saioa.

Bertsolariak

- Amaia Iturriotz Etxaniz
- Iñigo Mantzidor Larrañaga
- Manu Goiogana Bengoetxea
- Aner Peritz Manterola Euzkitze
- Oier Etxeberria Zubimendi
- Aitor Zubikarai Salegi

Gai jartzailea Haritz Alberdi Alberdi izango da.

GURASO LEKU
Familiaren hizkuntza-politika

0, 1 eta 2
urteko
haurren
gurazentzako
eskaintza


2, 3, 4 eta 5
urteko
haurren
gurazentzako
eskaintza

Guraso Lagun

Guraso Landia

Guraso Tegi

IZEN EMATEA ZABALIK
ESKUORRIA HERRIKO IKASTETXEETAN



Ezker-eskuin: Sandra Barkaiztegi, Asier Gorostegi, Esti Garmendia, Oihan Agirretxe eta Uxue Loinaz. EH BILDU LASARTE-ORIA

EH Bildu: "Noraezean dabil udal gobernua"

PSE-EE eta EAJ alderdien urtebeteko kudeaketaren gaineko balantzea egin du koalizio subiranistaren udal taldeak: "Udalak zekarren norabide eza eta kudeaketa tamalgarrria areagotu baino ez dira egin; egoera larria eta jasanezina da"

Txintxarri

Urtebete pasatxo da PSE-EEK eta EAJk udal gobernua eratu zutenetik udalerrria kudeatzeko. Tarte horretan gertatutakoaren balantzea egin du EH Bilduren udal taldeak: "Udalak zekarren norabide eza eta kudeaketa tamalgarrria areagotu baino ez dira egin; egoera larria eta jasanezina da". Batetik, kritikatu du ez direla gai

izan "zer-nolako Lasarte-Oria nahi duten definituko duen herri proiektu bat" aurkezteko, eta, bestetik, "ezgaitasuna" erakusten ari direla herritar eta eragileei egunerokoan eragiten dieten kontuak kudeatzerakoan.

Elkarte eta eragileek jasotzen dituzten dirulaguntzetan jarri dute fokua EH Bilduko kideek, besteak beste. Panorama "etsiga-

ria" dela deitoratu dute: "Hilabetetako atzerapenarekin ordaintzen dira, urte osoa gaindituz kasu batzuetan. Uda baino lehen kobratu dute iazko laguntzen azken zatia eta aurtengoak deitu gabe oraindik". Horren eraginez, taldeek "arazo larriak" dituzte eguneroko ordainketei aurre egiteko eta programazioak aurrera eramateko. Herriko familiei es-

kolako materiala erosteko udalak ematen dien ekarpen ekonomikoarekin gertatutakoa jarri dute adibidetzat: "Akats bat medio, iazko deialdia bertan behera geratu da eta eskaerak ezerezean geratu dira; bukatu zen ikasturtea eta dirurik ez dago, eskatzaileri inolako azalpenik eman gabe". Horrelakoak "marra gorri bat" dira koalizio subiranistarentzat. "Ezinbestekoa da eragileekin lan-kidetzat hurbil eta on bat garatzea".

"Gabeziak" departamentuetan

Udal gobernuak "modu planifikatuan" ez kudeatzea "arazoa" dela uste du EH Bilduk eta horrek ondorioak ekarri dituela udal-txeko sail askotan. Zerbitzu Publikoena, esaterako, "hankaz gora" dagoela salatu du, udan langile bakarra aritu delako lanean, "zetozkion lanei nekez aurre eginez". Euskararenean, aldiz, bost langiletik bi falta direla jakinarazi du eta sei hilabete daramatzala arduradun teknikorik gabe. Kulturarenean "ezegonkortasuna da nagusi azken urtean", bai gerentziari eta bai gainerako ia lanpostu guztiei dagokienez, "halamoduzko erantzunak" emanda herritarren beharrei.

"Kirol departamentua arduradun teknikorik gabe egon da otsailetik, eta, batzordea, sei hilabetetan deitu gabe", adierazi du EH Bilduk. Gizarte Zerbitzuetan, berriz, berdintasunaren arloaz arduratzen den gizarte langilea bajaran dago duela hilabete askotatik eta ez dute ordezkatu. Horrez gain, langile gehiago falta direnez, beharrez ari direnen artean banatzen dituzte zereginak: "Horrek dakartzan saturazio eta atzerapenak herritarren kalterako dira".

Departamentuetan "gabeziak" egoteak "kili-kolo" utzi ditu ho-

riek ematen dituzten zerbitzuak. Gainera, lanpostuak betetzeko "zailtasunak" ditu udalak: "Badakigu administrazioan oro har gertatzen ari den zerbait dela, baina Lasarte-Oriaren egoera ez da kasualitatea. Areagotzen ari da aspaldidanik datorren arazoa, azken urteetan hartutako erabaki estrategikoen ondorioz". Adibidetzat jarri du EH Bilduk iraupen luzeko bajekin gertatzen dena: "Ez dituzte beti ordezkatzen eta horrek lan karga eragiten die beste langileei, ohikoa ez den egoera bat probokatuz: askok alde egiten dute aukera duten bezain pronto". Herritarrek pairatzen dituzte horren ondorioak: "Ematen zaien arreta eskasa da: ez da azkarra, ez da eraginkorra, ez da haien beharretara egokitzen".

Azterketa eta plangintza

Aurrez azaldutakoari irtenbidea emate aldera, EH Bilduk eskatu dio udal gobernuari "azterketa zintzo bat eta hartu beharko dituen neurri zehatzen plangintza" osatzea, "epe motz, ertain eta luzean" aplikatzeko. Hori, edonola ere, urrun ikusten du koalizio subiranistak, salatu duelako PSE-EEK eta EAJk ez dutela egoera "larri" horri irtenbidea emateko planik: "Noraezean eta inertziaz ari dira".

Udal gobernuak lanketa hori egitekotan, hartuko dituen neurriak oposizio alderdiei eza-gutaraztea "ezinbestekoa" dela adierazi du EH Bilduk: "Hori ez da beti gertatzen; ezin dugu ezkutatu irakurketa hau egin ahal izateko informazioa eskuratzeko izan ditugun zailtasunak". Amaitzeko, kideek nabarmendu dute lasarteoriatarren alde "zintzoki" aritu nahi dutenek "beti" izango dituztela bidelagun.

Elizkizunetarako ordutegi berria, hilaren 15etik indarrean

Eskualdeko parroketan emango dituen meza eta hiletak moldatu dituzte Andatzazpiko kristau elkarteek

Txintxarri

Eskualdeko parroketan ordutegi aldaketak egingo dituztela jakinarazi dute Andatzazpiko kristau elkarteetako kideek eta igande honetan sartuko direla indarrean, hilak 15. "Duela be-

deratzi urtetatik bi parroko izan ditugu, Ibon Alberdi eta Juan Luis Murua, Andatzazpi Pastoral Barrutiko elkartearen buru eta zerbitzari izan direnak. Uda honetan jakin dugu Ibonek ezin izango duela gurekin jarraitu,

Gotzaindegiak erabaki duelako beharrezkoa dela bere egoera aldatzea. Hortaz, Juan Luis izango da lau eliza horietako parrokoa", azaldu dute.

Gauzak horrela, San Pedron larunbatetan egingo dituzte meza, 19:00etan. Igandeetan, berriz, 10:00etan San Frantziskon (Aginaga), 11:30ean Salbatoren (Usurbil), 12:30ean San Pedron (gatzelaniaz soilik) eta Arantzazuko Ama Birjinan (hilean behin eukaristia egingo dute, eta, besteetan, apaizik gabeko ospaki-

zunak). Bestalde, astelehenetatik igandeetara, 11:00etan, Ama Brigitarren komentuan eukaristia ospatzen segiko dute. Felix Garitanok jarraituko du kapilaua izaten.

Hiltzen diren pertsonen aldeko elizkizunak astean bi egunetan egingo dituzte udalerrri bakoitzean. Arantzazuko Amakoak astelehenetan egingo dituzte, 18:00etan; San Pedrokoak, ostiraletan, 19:30ean. Usurbil-Aginagan, berriz, astelehenetan izango dira Salbatorekoak, 19:30ean, eta os-

tegunetan Salbatoren edo San Frantziskon, 19:30ean. Beilatokian edo hilerrian oroitza batekin hildakoak agurtu nahi dituzten familiak parrokiekin jarri ahaliko dira kontaktuan, 639 02 88 61 telefono zenbakiaren bidez, baita edozein zalantza argitu nahi dutenak ere.

Kristau elkarteetako kideek adierazi dute "berria" dela egoera eta "egokituz" joan beharko dutela guztiek, "kristau elkar-teari ahal den arreta eta zerbitzu onena emateko".



Udalerriko osasun zentroaren atarian elkartu ziren LOOPAko kideak eta 'Osasun publikoaren alde. Lehen arreta indartu' lelodun kartela erakutsi zuten. TXINTXARRI

Herriko biztanleen ia erdiek medikurik ez dutela salatu du LOOPA

Osakidetzako arduradunekin alkateak izandako bileraz hitz egindakoak baloratu ditu "kalitatezko osasun publikoaren aldeko" eragileak. Kideek herritarrei eskatu diete "aktiboak" izateko beraien eskubideen defentsan eta datozen ekimenei adi egoteko

Txintxarri

Iazkoa amaitzean bezain arduratuta ekin dio LOOPA Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Aldeko plataformak ikasturte berriari. Uztaileko ohiko udalbatzarra adi jarraitu zuten eragile horretako kideek: orduan kontu eman zuen Agustin Valdivia alkateak Osakidetzako arduradunekin bilera batean hitz egindakoez. Apirilean eskatu zion hori egitea LOOPA, mozio bidez: "Udalerriko egungo sanitarioari buelta emango dion talka plan bat eskatzea, eta, ondoren, bilkuraren emaitzaren berri ematea lasarteoriarrei".

Uztaileko saio horretan entzun zuten gauza denen artean "larriena", eragileko kideen iritziz, "Osakidetzako arduradunek etorkizunerako iragartzen duten osasun publikoaren eredia da". Azaldu dute familientzako erre-

ferentziatzako pertsona ez dela medikua izango, erizaina baizik. "Zer medikuntza prebentibo mota egin daiteke horrela?". LOOPA defendatzen du ardura hori diziplinarteko talde egonkor batek (medikua, erizaina, pediatra...) izan behar duela, "taldean lan" egingo duena eta "prebentzio, babes eta sendatze lanak" egingo dituen. "Ikerketa zientifiko guztiek erakusten dutenez, hori bezalako sendagai eraginkorragorik ez dago heriotza tasak epe ertain-luzean murrizteko".

Sei kupo, hutsik

LOOPAren "susmo txarrenak" gainditu ditu Osakidetzako arduradunek alkateari esandakoek. Izan ere, udalerriak hamabi kupo-mediku bakoitzari esleitutako pertsona multzoa eta erdi ditu eta uneotan sei bete gabe daude, lau hutsik daude-

lako eta beste bietan iraupen luzeko bajak dituztelako langileek. "Lasarte-Oriako biztanleen ia erdiek ez dute medikurik!", salatu dute. Horri guztiari gehitu behar zaizkie oporraldiak eta iraupen laburreko bajak, gaur-gaurkoz ordezkatzen ez direnak. "Horrek frogatzen digu pairatzen dugun egoera guk uste baino askoz okerragoa dela".

Valdiviak uztaileko udalbatzar horretan kontatu zuenez, arestian azalduko egoera hori "partzialki" bideratuko du Osakidetzak, hutsik dauden lau kupoak Enplegu Publikorako Eskaintza

"DIZIPLINARTEKO TALDE EGONKOR BATEK IZAN BEHAR DU FAMILIENTZAKO ERREFERENTEA"

(EPE) baten bidez: "Urte amaierarako ebatzita behar luke". LOOPAko kideak poztu ditu "egungo arreta falta arintzen lagunduko duen" neurri horrenatik, baina bat egin dute alkatetako orduan adierazitako "eszeptizismoarekin". "Ahaztu gabe iraupen luzeko bi bajak ez dituztela ordezkatuko eta konponbidea urrun egongo dela oraindik". Eragileak "erne" jarraituko du bilakaera.

Larrialdi zerbitzurik gabe

Asteburuetan larrialdi zerbitzurik ez izateak ere kezkatzen du osasun publikoaren aldeko herritar taldea. Arduratuta dago gabezia horrenatik eta baita Osakidetzako kudeatzaileen justifikazioagatik: "2012tik aurrera ezarri zen zerbitzu hori aparteko gauza bat izan zen, Donostialdean mediko gehiegi zeudelako". Norabide horretan, uler gaitza zaie "momentuko zirkuntantzien arabera" gestionatzea sistemaren baliabideak, "herritarren osasun beharren araberrako plangintza baten barruan" antolatuko ordez. "Zer plangintza arduragabea da, urte gutxiaren buruan, mediku gehiegi edukitzetik apenas kupoen erdiak beteta izatera garamatzana? Herritarrok azalpen bat merezi dugula uste dugu".

Horren guztiaren aurrean, eragileak eskaera batzuk egin dizkio udalari, nahiz eta badakien erakunde horrek eskumenik ez duela osasunaren esparruan.

Galdegin dio "lidergo jarrera aktiboa" hartzea administrazio publiko eta beste entitate batzuen aurrean, "lasarteoriarren kalitatezko osasun publikorako duten eskubidearen defentsan". Halaber, "zaurgarritasun egoeran daudenentzako laguntza mekanismoak" ezartzea eskatu dio, "Osakidetzak uneotan ematen ez duen kalitatezko arreta jaso dezaten".

Oinarrizko giza eskubidea

"Osasuna oinarrizko giza eskubide bat da, ez negoziatua". Argi hitz egin dute LOOPAko kideek eta berretsi dute "kalitatezko osasun publikoaren alde" duten konpromisoa. "Lehen arreta sistemaren erdigunean jartzea, gaixotasunen prebentzioa eta osasuna sustatzea, hurbileko tratua ematea, pazienteak nahikoa denborarekin artatzea eta atzerapen zerrendak zentzuzkoak izatea nahi dugu".

Aldarrikapen horiek gero eta jende gehiagorenak izatea nahi dute eta horrenatik gogorarazi dute "talde irekia" dela LOOPA. Herritarrei eskatu diete "eragile aktiboak" izateko: "Ez dugu beste inoren esku utzi behar gure eskubideen defentsa". Datozen aste eta hilabeteetako ekimen eta deialdiei adi egotea eta mobilizazioetan parte hartzea ere galdegin diete. Eragileko kideekin harremanetan jarri nahi duenak lasarteoriaopa@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar du.

Harro egongo da zaindaria

Extremadurako jaiak, herrian

Guadalupeko Ama, lurraldearen zaindaria, gogotik omendu zuen Extremadurako Etxeak, hilaren 5etik 8ra bere omenezko jaiak ospatuta. Ohi bezala, makina bat jarduera aurrera eramán zituzten adin tarte guztietako herritarrak kontuan izanda: haurrentzako jolas eta tailerrak, kontzertuak, meza, bazkari eta afari herrikoak, karaokea, ostiral eta larunbat gauak girotzeko DJa, herri kirolak, futbolin txapelketa... Sasoeta auzora igo ziren guztiek primeran pasa zuten egun horietan guztietan.

Programaren bizkarrezurra antzekoa izan ohi bada ere, Extremadurako Etxeko kideek urtero sartzen dute berritasunen bat. Aurtén, adibidez, zenbait bazkidek danborrak eta makilak hartu eta Extremadurako ereserkia jo zuten aurreneko aldiz. Gutxi entseatzeko aukera izan zutela aitortuta ere, nahikoa txukun aritu ziren.



Extremadurako jantzi dotoreak erakutsi zituzten Adarra kaleko egoitza parean. TXINTXARRI



Dinbi Banda batukada taldeak Sasoeta auzoa alaitu zuen. TXINTXARRI



Txupinazoa jaurti aurretik danborrada jo zuten zenbait herritarrek. Extremadurako ereserkia jo zuten estro...



Tolosako Flor de la Jara taldeko lagunek girotu zuten komentuko meza. TXINTXARRI



Donostiatik etorritako Virgen de Guadalupe taldearen emanaldia. TXINTXARRI



treinakoz, eta, gutxi entseatzeko aukera izan zutela aitortu arren, txukun aritu ziren. TXINTXARRI



Extremadurako Etxeko lehendakari Emilio Llanos, bazkideen afarira joandakoei ongietorria ematen. TXINTXARRI



Igande goiza jolasten igaro zuten haur ugari. TXINTXARRI



LOZET elkartearen erraldoiak kalejiran ibili ziren auzoan barrena. TXINTXARRI



Lagun kuadrilla honek primeran pasa zuen karaokean abesten. TXINTXARRI



Festak amaitu aurretik suziri batzuk jaurti zituzten zerura. TXINTXARRI



Donostia Arraun Lagunak-eko taldekideak, portuan, Kontxako bandera erakusten. JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN/IRUTXULOKO HITZA

Denboraldia biribiltzeko, Kontxako bandera

Donostia Arraun Lagunak-ek ez du huts egin. Kontxako Banderako bigarren jardunaldian nagusi izan da; aurkariei ez die aukerarik eman. Bigarren urtez jarraian eskuratu du Lugañenek Donostiako badiako uretan lehiatutako estropada

Txintxarri

Donostia Arraun Lagunak-ek izugarritzko balentria egin du aurtun. Denboraldi hasieratik sendo jardun da. Gipuzkoa, Euskadi zein Espainiako txapelketako eta Euskotren Ligako garaile nagusia izan da Lugañene. Urteari amaiera paregabea emateko Kontxako bandera ere erdietsi du Aiora Belartietara eta Nahia Goenaga herritarrek kide dituen eskifaia.

Erakusketa ederra egin zuen Donostia Arraun Lagunak-ek Kontxako banderako bigarren

jardunaldi euritsuan. Euskotren Ligako lehen lau saikatuak batu ziren saioan eta Tolosaldea, Nortidal Donostiarra eta Orio Orialki gairitu zituen Juan Mari Etxabek zuzendutako taldeak.

Lehen jardunaldiko errenta izan arren, gogotsu atera zen Lugañene irteeran eta probako buru jarri zen. Lehen luzean hiruzpau lau segundoko errenta eskuratu zuen Donostia Arraun Lagunak-ek aurkariekiko eta Kontxako badiara itzuleran alde handitza lortu zuten.

Helmugan 10.36.16 egin zuen Aiora Belartietara herritarra bran kan izan zuen ontziak. Donostiarra sei segundora iritsi zen, Tolosaldea hamarrera eta Orio azkenik, hamabi segundo eta erdira.

Lehen txandan, Astillero izan zen azkarrena eta Kaiku, Chapela eta Hibaika iritsi ziren jarraian hurrenketa horretan.

Bijardunaldietako marka batuz nagusi izan da Donostia Arraun Lagunak (ikus koadroa) eta hirugarren Kontxako bandera gehitu dio bere garaipen zerrendari; bigarrena jarraian.

Intzako pilotariak kanpoan hasiko dute lehia

Nagusien 3. mailako bikoteak eskuz binaka eta gomazko pilotako pala lehia jardungo dira

Txintxarri

Intza Kirol Elkarteko kantzara aterako dira gaur, hilaren 13an. Nagusien 3. mailako bikoteek eskuz binaka zein gomazko pilotako palan Ezker Hormako Txapelketa lehiatuko dute abendura bitartean.

Peru Urdanpilleta eta Jon Pello Artetxe izango dira eskuzko modalitean lehia. Ez dira bakarrik egongo, Haritza Diaz de Gereñu eta Beñat Olazabal ordezkoko modura inskribatu baituzte.

Gomazko pilotako pala bikotea, aldiz, Jagoba Mendizabalek eta Julen Urruzolak osatuko dute.

Pilota eskola

Hilaren 10ean, aldiz, Pilota Eskolako gaztetxoak hasi ziren lanean kirol guneko pilotalekuan. Pilotariak astearte eta ostegunetan dituzte saioak adinaren arabera; benjamin eta alebinek 17:30etik 19:00etara eta infantilek, aldiz, 16:30etik 20:00etara. Gogor egingo dute lan urrian hasiko duten denboraldiari begira.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA, LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - Berriotoa

Larunbata. 11:30. Michelin kirol gunean.

GORENGO MAILA, LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - Ilintxa

Larunbata. 17:15. Michelin kirol gunean.

I. ERREGIONALA, LAGUNARTEKOA

Hernani - Ostadar SKT

Larunbata. 09:45. Zubipe, Hernanin

I. JUBENILA, LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - Billabona

Igandea. 11:00. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO K. M., LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - Billabona

Larunbata. 09:45. Michelin kirol gunean.

LAGUNARTEKOA

Texas Lasartearra jubencil - Texas

Lasartearra kadete

Igandea. 09:30. Michelin kirol gunean.

INFANTIL TXIKI, LAGUNARTEKOA

Ostadar SKT - Billabona

Larunbata. 13:15. Michelin kirol gunean.

SASKIBALOA



J. ERRENDIMENDUA URREA

Mondragon Uni. Morea - Ostadar SKT

Larunbata. 10:00. Musakola kirol., Arrasaten.

K. ERRENDIMENDUA URREA

Andraitx KE - Ostadar SKT A

Larunbata. 11:00. Bikuña kirol., Legazpin.

K. ERRENDIMENDUA ZILARRA

Innova Hertz Klinika ISB - Ostadar SKT B

Larunbata. 11:30. Azkoitiako kiroldegian.

PILOTA

ESKUZ BINAKA, NAGUSIAK, 3. MAILA

Ilunpe 1 - Intza

Gaur. 18:15. Azpeitian.

GOMAZKO PALA, NAGUSIAK, 3. MAILA

Azk. Oteiza - Intza

Gaur. 18:00. Azkoitian.

ERRUGBIA

EUROPAKO SUPER KOPA

Alex Saleta herritarra kide duen

Castilla y Leon Iberians taldeak

Georgiako Black Lion izango du aurrez aurre.

Igandea. 12:00. Burgos, Gaztela eta Leonen.

TRIATLOIA

GETXOKO TRIATLOIA

Herriko hainbat kirolarik Getxoko

Triatloio olimpikoa-Agustin Ugarte

oromenezkoan parte hartuko dute.

Igandea. 14:40. Getxo, Bizkaian.

Sailkapen orokorra (1+2 jard.)

1. Donostia Arraun Lagunak	21.04,42
2. Nortidal Donostiarra	21.25,08
3. Orio Orialki	21.25,72
4. Tolosaldea	21.26,60
5. Astillero Eneryt Servicios	21.45,10
6. Chapela Wofco	21.56,08
7. Kaiku Nortegas	22.02,00
8. Hibaika Jamones Ancin	22.17,14

Intza KEko bikoteen aurkariak:

Eskuz binaka, Nagusiak, 3. maila

- Ilunpe 1
- Tolosa 2
- Alde Zaharra
- Beloki
- LAPKE 3

Gomazko pala, Nagusiak, 3. maila

- Altzatarra 1
- Eibar 2
- Beloki
- Azk. Oteiza
- Zarautz 3
- Beotibar 1

Eskolan izena eman nahi izanez gero, pilotalekura entrenamendu orduetan joan; *jonpear-*

tetxe@gmail.com helbidean edo 650 45 93 54 telefono zenbakian egin daiteke.

Kirola eta oroimena, II. Mendi Lasterketan

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek uztailean zendu zen elkarteko zuzendaritzako kide Juanlu de la Mataren oroimenezko proba bihurtuko du Mendi Lasterketa. Berrikuntza modura, errekorra gainditzen duten lehen emakumezkoak zein gizonak sarituak izango dira

Txintxarri

Hilaren 29an, II. Mendi Lasterketa antolatuko du Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek (LOTME) udalaren laguntzaz. Taldeko kideek eta udal ordezkariak bigarren aldiko aurkezpena egin zuten hilaren 9an.

Javi Olazagoitia LOTMEko kideak azaldu moduan, elkartearen helburua bere sorreratik mendi lasterketa antolatzea zen eta iazko esperientziaren ostean, aurten ere aurrera egitea erabaki dute; proba bi urtetan behin jokatu da eta 2026an izango da hurrengoa.

Aurtengo aldia berezia izango da, ordea; uztailean entrenatzen ari zela elkarteko zuzendaritzako kide Juanlu (Juan Luis de la Mata) zendu zen eta horregatik bere omenez lasterketaren izenak moldaketa bat izango du, *Lasarte-Oriako mendi lasterketa. Juanlu oroitzuz*.

Elkarteko kideentzat hunkigarria izango den edizio hau prestatzeko dena eman dutela onartu zuen Olazagoitiak: "Ez da erraza izan. Juan-



LOTMEko kideak eta udal ordezkariak, Juanlu de la Mataren argazkia atzean dutela. TXINTXARRI

lu LOTMEko sortzaileetako bat zen eta zerbait beharrez gero, beti zegoen prest laguntzeko. Informatikako kontu guztiak berak zeramatzan eta pixkanaka moldatzen goaz".

Eta sari banaketan, Juanluk zendu baino egun bat lehenago ateratako argazkia eta *Juanlu beti gogoan* hitzak dituen lona jarriko dutela iragarri zuen.

Ibilbidea eta sariak

Ibilbideak ez du aldaketarik izango. Lasarte-Oriatik Buruntza mendirako joan eta etorriko bidea egingo dute parte hartzaileek, hau da, 4,5 km eta 780 metroko desnibel positiboa duen bidea (ikus perfla).

Sari nagusiek ez dute moldaketarik izango; kategoria bakoitzeko lehen hiru sailkatuek 100 euro, 50

euro eta 25 euro jasoko dituzte, hurrenez hurren. Aldaketa bakarra aipatu zuen Olazagoitiak: "Aurten Buruntzara iristen den lehenak ez du saririk izango. Horren ordez, probako errekorra hausten duten lehen emakumeak zein gizonak 100 euroko saria jasoko dute. Ez baldin bada marka gainditzen dirua metatzen joango da edizioz edizio".

Dortsal zozketa

Pozik agertu zen LOTMEren kidea izena emate kopuruarekin: "Egun 115 lasterkarik eman dute izena. Iaz garai hauetan 60 bat ziren. Azken asteetan sartzen gara eta jendea animatzea espero dugu".

Hala ere, eguraldiaren menpe daudela onartu zuen Olazagoitiak. "Eguraldia lagun izatea espero dugu, ez familia ibilaldian bezala. Eurria eginez gero parte hartzea jaitsi daiteke".

Lasterkariak hilaren 26a arte izango dute izena emateko aukera LOTMEko webgunean. Dortsal banaketa egunean ere, 28an, ins-

kripzioak egiterik izango dela aipatu zuen Olazagoitiak.

Horrez gain, sare sozialetan mendi lasterketa zabaltzeko bi dortsalen zozketa jarri dute martxan: "Jendeak sare sozialetatik lasterketaren berri ematea, lagunak etiketatzea eta partekatzea nahi dugu. Aurtengo lasterketa garrantzitsua da eta 200 parte hartzaileetara iristen baldin bagara pozarren egongo gara".

Azkenik, lasterketa antolatzea sozioekonomiako hitzarmenari esker posible dela aipatu eta herriko babesleei ere eskerrak eman zizkien: "Hau guztia, ez litzateke posible izango laguntzaile eta babesleei gabe. Euren lana eskertzea da. Laguntza beti da ongi etorria".

Udal ordezkariak ere hartu zuten hitza. Alkate Agustin Valdiviak izen aldaketa omenaldi polita eta etengabea iruditzen zaiola adierazi zuen. Sozioekonomiako buru Nuria Fernandezek, aldiz, udalak 200 euro gehi BEZeko laguntza eta Tratu on bat markako poltsak ematen dituela gogora ekarri zuen.

Ostadarreko saskibaloit taldeak lehia hasteko prest daude

Junior zein Kadete errendimendu mailako taldeek denboraldiko lehen faseari hasiera emango diote

Txintxarri

Saskibaloit denboraldia hastear da. Hilaren 14an, Ostadar SKTko errendimendu mailako hiru taldeek ekingo diote lehiari (ikus agenda) eta lehen fasean maila igora edo jaitziera izango dute jokoan.

Junior Errendimendu Zilarra zein Kadete Errendimendu Zilarra eta Urrea kategoriako taldeak zortziko multzoetan lehiatuko dira (ikus ondoko taula). Urtarrila bitartean, bi itzuliko ligari egingo diote aurre. Hori amaitzean, multzoko lehen sailkatuak Euskal Ligara edo



Lagunarteko baten irudia. TXINTXARRI

Errendimendu Urrea mailara igoera zuzena eskuratuko dute; hurrengo lauek, aldiz, igoera fase bat jokatu dute eta garailea mailaz aldatuko da. Errendimendu Urrea mailan, gainera, azken bi saikaltuek jaitziera lehiatuko dute.

Lehen fase hori amaituta, fase erregularren txanda izango

da eta maila goreneko partaideek Gipuzkoako txapelketa izango dute jokoan.

11 talde

Hiru talde hauek urrian hasiko diren gehiengoaren aurrekari izango dira; denboraldi honetan Ostadar Saskibaloit atalak 11 talde izango ditu lehian maila

federatuan: bi senior (2. eta 3. mailan), bi junior (Errendimendu Zilarra eta Partaidetza), hiru kadete (Errendimendu Urrea eta Zilarra zein Partaidetza) eta lau infantil (bi Partaidetza Handi eta bi Partaidetza Txiki).

Kantxara ateratzen azkenak saski eskolako kideak izango dira.

Ostadar SKTko taldeen aurkariak:

Junior Errendimendu Zilarra

- Saki Axular
- ZAST 2007-08 ZKE
- Mondragon Unibertsitatea Morea
- Bera Bera Rikardo Taberna
- Inar Optika ISB

- Biko Asesoria Oiarso SKT
- TAKE Redline Mekanika

Kadete Errendimendu Urrea

- Krean Ointxe!
- Antigua Luberri KE
- Ordizia
- Easo Basket Gamma
- Yoga Shala Askatuak
- Andraitx KE

- Carrocerias Amute Hondarribia

Kadete Errendimendu Zilarra

- Panelfisa TAKE
- ZAST 2009 ZKE
- Bera Bera
- Innova Hertz Klinika ISB
- Ipartronic Oiarso SKT
- Arri BKL Txindoki
- Eskoriatza KE



Buruntzaldea IKTK antolatutako igeriketa proba, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan. TXINTXARRI

Buruntzaldea IKTk, eskaintza zabala

Igeriketa taldeko kideek hilaren 16an hasiko dituzte entrenamendu saioak; master mailako igerilariak, aldiz, urrian. Atal ezberdinetako izen ematea irekia du kirol elkarteak. Aurten 2018 urteko haurrek bat egin dezakete elkartearekin

Txintxarri

Buruntzaldea IKTk gaztetxoek hilaren 16an, astelehenarekin hasiko dituzte entrenamenduak. Adin ezberdinetarako aukera anitza eskaintzen du herriko igeriketa taldeak (ikus goiko koadroa).

Igeriketan lehen pausoak eman edo trebatu nahi duten haurren-

tzat igeriketa eskolarra edo igeriketa eskola dute; aurten 2018 urteko haurrak has daitezke. Lehiatu nahi ez dutenentzat ere parte hartze igeriketa eskaintzen du taldeak, baita helburu anitzak izan ditzaketen helduei zuzendutako master igeriketa saioak ere. Azken horiek urrian hasiko dituzte entrenamenduak.

Atal guztietako izen ematea irekia dago. Buruntzaldea IKTk webgunean egin daiteke inskripzioa; informazio zabalagoa ere aurki daiteke.

Era berean, 696 50 66 32 telefono/WhatsApp zenbakian edo info@buruntzaldeaikt.eus helbide elektronikoa argituko dituzte zalantzak edo kontsultak.

Igeriketa eskolarra / Igeriketa eskola

- **2018an jaioak:** Asteartea eta/edo osteguna, 17:15etik 18:00etara. Egun bat edo bi aukera ditzakete.
- **2017an jaioak:** Asteartea eta osteguna, 18:00etatik 18:45era.
- **2016an jaioak:** Astelehena eta asteazkena, 17:30etik 18:30era.
- **2015ean, 2014an eta 2013an jaioak:** Astelehena, asteazkena eta ostirala, 17:30etik 18:30era.
- **2012an eta 2011n jaioak:** Astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala, 16:15etik 17:15era.

Parte hartze igeriketa

Lehiaketa gabea

- **2012an eta aurrez jaioak:** Asteartea bakarrik, osteguna bakarrik edo bi egunak. 18:45etik 19:30era.

Master Igeriketa

18 urte edo gehiagokoak. Itsas zeharkaldiak prestatzeko, triatlaiak prestatzeko, osasunagatik, jardura fisikoagatik, ... helburu anitzak eta pertsonalak.

- Astelehena, asteazkena eta ostirala. Bi ordutegi aukeran: 07:10etik 08:10era / 18:30etik 19:30era bitartean.

Erreleboan, zazpigarren postua

Buruntzaldea IKTk Nahia Zudairek Parisko Paralinpiar Jokoei eta La Defense igerilekuari agur esan zien, hilaren 7an. Zubietako igerilaria 4x100 m. libre 34 puntu errelebo libreko finalean parte hartu zuen Sarai Gascon, Iñigo Llopis eta Ariel Schrenck-in batera eta Zazpigarren postua eskuratu zuten. Lehen postan egin zuen igeri Zudairek, 01.09,92 marka eginez; laukoak 04.10,99 behar izan zituen lehia amaitzeko. Italia izan zen garaile munduko errekorra eginez, 04.01,54.



BAT BASQUE TEAM

Ezusteke ugari, denboraldiko azkenaurreko saioan

'El Caney'-k irabazi du Donostiako Saria; Raul Ramos herritarrak ere garaipena erdietsi du hirugarren proban

Txintxarri

Udako denboraldiari agur esan dio Donostiako Hipodromoak. Atzo hilaren 12an arratsaldean, aldizkariaren edizioa itxi bitartean, garaiko azken jardunaldia jokatu zen; hurrengo zenbakian berri emango dugu. Baina lau egun lehenago, ezustekoz betetako azkenaurreko saioaz gozatu zuten zaldi lasterketen zale-tuek.

Hipodromoko probarik zaharrena eta luzeena jokatu zen saioan, 108. Donostiako Sari Nagusia-Irizar Saria. Proba zi-

rraragarria izan zen eta Jaime Gelabertek gidatutako *El Caney* gailendu zen azken 100 metroetan. Zambudio-*Ponce de Leon* bikoak gidatu zuten lasterketa, azken zuzengunean Gutierrez Val-*Shelby* eta Janaçek-*The Way of Bonnie* bikoak arteko buruzkoa egon zen, ordea.

Horietako batek garaipena lortuko zuela zirudien arren, lasterketan zehar taldean mantendu zen Gelabert-*El Caney* bikoak bere indarra erakutsi zuen biak gainditu eta proba irabazteko.



Donostia Sariko lehen sailkatuak, helmuga igaro ostean. ISAAC FARRE RICO

Aurretik, arratsaldeari hasiera emateko, Hipodromoan debuta egin zuen *Hermes Wood*-ek lortu zuen Donostiako sustapena saria. Mouesan-*Monte Negro* eta Gutierrez Val-*Tamaghu* izan ziren proba guztian zehar lehen bi postuetan, baina azken 400 metroetan Maxime Foulon joc-

keyak *Hermes Wood* kilikatu eta guztiak gaindituz, helmugara bakarrik iritsi zen.

Espainiako Amateur Kopa saria, aldiz, Pablo Labordek eta *Always on Time*-k eraman zuten. Gredilla-*Vita Bareliere* bikoak lasterketa gidatu zuten arren, *Always on Time* Bugatiko bihur-

gunean eta azken zuzengunean postuak irabazi joan zen. Hel-mugarako metro eskas geratzen zirela azken errematea eman eta garaile izan zen.

Eguneko hirugarren lasterketan, Raul Ramos herritarrak *Bailen*-ekin batera Prodesa ingeniari-tza saria eskuratu zuten. Buruz buruko polita izan zuen proba gidatzen izan zen izan zen Gelabert-*Brizna*-rekin helmugatik 200 metrora. Baina herritarrak eta *Bailen*-ek aurkaria atzean utzi eta garaipena erdietsi zuten.

Jose Luis Borregok eta *Portofino*-k ere azken metroetan lortu zuten Turfaren emakume profesionalen elkarteko saria. Loiza-*Mister Kool* eta Sousa-*Guerreira* bikoak garaipena borrokatzen ari ziren arren, pista erditik biak gainditu zituen *Portofino*-k proba irabazteko.

Ostadar Ipar Martxa sailak, urteurren berezia

Ostadar Ipar Martxa taldeak 10 urte bete ditu. Hamarkada ospatzeko hainbat ekimen antolatu ditu hilaren 28rako herriko hainbat eragileren laguntzaz. Ohiko jarduerak ere ez dituzte ahazten; entrenamenduak hasi dituzte eta ikasturteko plangintza ere prest dute

Txintxarri

Ostadar Ipar Martxa taldeak ikasturte berria ospakizun handiarekin hasiko du. Urtea berezia da taldeak 10 urte bete ditu eta urteurrena ospatzeko hilaren 28an egitarau "xumea" prestatu du taldeak herriko taldeen laguntzarekin. Ibilaldia, bazkaria, bertsoak, bakarriketak, kontzertuak... kultur agendan ikusi ahal duzue egun osoko programa; horren guztiaren artean, nabarmenezkoa da taldearen abestiaren aurkezpena egingo dutela.

Saileko arduradunek azaldu modura, Ostadar Ipar Martxa duela hamar urte sortu zen kanpoko jarduera fisiko zein aisialdiko doako jarduera gisa, aktibo mantentzeko eta harreman sozialak areagotzeko, herri jardueretan parte hartzeko eta euskara sustatzeko.

Hori guztia aurrera eramateko Ostadar SKTren laguntza eskertu du sailak, "mimatu,



Ostadar Ipar Martxako kideak, urteurrenko aurkezpenean. ISAAC FARRE RICO

bultzatu eta babesa eman digu. Orain artean bizi izan dugun guztia ospatzeko arrazoi handia da".

Horren harira, Ostadar SKTko ordezkariak ere hitz batzuk eskaini dizkiote taldeari: "Ipar Martxako taldea oso dinamikoa da eta izugarriko presentzia

eta indarra du gure herrian. Oso harro gaude taldearekin, ez bakarrik kirol mailan egiten ari den lanagatik, baizik eta zabalitzen dituen baloreengatik ere. Eta zer esanik ez, taldeak gure klubaren irudia eta koloreak bai herrian, bai herritik at ere, nola zabaltzen duen ikusteak

sortarazten digunaz. Beste hainbat urtez elkarlanean jarraitzea espero dugu".

Entrenamenduak eta irteerak

Ospakizun eguna iritsi bitartean lanean hasi da taldea. Ostegunero biltzen dira Ipar Martxako kideak 19:00etatik 20:15era entrenamendu saioak egiteko. Eta ikasturtean zehar, ikastaro bereziak ere izango dituzte iragarri dute taldeko arduradunek.

Gainera, kirol jardueraz harago doan ekimena denez, herriko zein gure eremuko ekimenean parte hartzen dute –Euskararen Maratoia, Mugikortasun eguna, Buruntzaldeko ibilbideen eguna, Lasarte-Oria Bai! Herri krosa, San Silvestre lasterketa edo elkartasun jarduerak (Aspanogi, Begisare, Aspargi...)– eta hilabetero hainbat irteera ere antolatzen dituzte. Horien artean, azpimarragarria da Pazko Astearen egiten duten bidaiak. Aurtengo ikasturteko egitaraua dagoeneko prest dute eta ondoko koardroan ikus dezakezue hilabetez hilabete.

Lasarte-Oriako herritarrei 10. urteurrenko ospakizunetan parte hartzeko gonbita egiten die taldeak, baita kirol jarduera horretan lehen pausoak emateko ere. Interesa izanez gero, ostadar@ostadarskt.eus, 943-36 04 33 zenbakian edo Ostadar SKTko Geltoki kaleko bulegoan, 17:00etatik 19:00etara eska dai-teke informazioa.

2024-2025 ekimenen egutegia

Iraila

- Mugikortasun eguna.
- 10 urteurrenko festa.

Urria

- Buruntzaldeko ibilbideen eguna.
- Kataluniako taldearen bisita.

Azaroa

- Malerreka bailara: Zubieta-Donetztebe ibilbidea.
- Pilatwalk ikastaroa.

Urtarrila

- Deba-Ondarru ibilbidea.

Otsaila

- Zumarraga-Loiola ibilbidea.

Martxoa

- Bianditz mendian barrena ibilbidea.

Apirilean

- Jaizkibelen ibilaldia.
- Pazko asteko irteera.

Maiatza

- Bastida-Urt-Baiona ibilbidea.

LOKE Judo saileko kideak, txapelketetarako prestatzen

Entrenamendu saioak hasi dituzte eta junior mailako kideek hilabete amaieran hasiko dituzte lehiak

Txintxarri

LOKE Judo saileko kideek hilaren 9an hasi zituzten entrenamenduak.

Adin ezberdinetako kirolariak Gorka Aristegi entrenatzailearen esanetara biltzen dira astelehen asteazken eta ostiraletan Maialen Chourraut kiroldegiko tatemian. Txikienak 6 eta 9 urteko gaztetxoek 18:00etatik 19:00etara dituzte saioak, 10 eta 11 urteko kirolariek 19:00etatik 20:00etara eta 12 urteko gorakoek azken horien hasiera ordu bera dute, baina 20:30ean amaituko dute.



Topaketan izan ziren judokak. LOKE JUDO

Judoan trebatu nahi dutenei irekita dago taldea eta informazioa edo izena eman nahi izanez gero, 651 70 22 85 zenbakira dei dezakete interesdunek.

Iraila

- **21ean**, junior mailako Superkopa, Kanaria Handia, Kanariar Uharteak.
- **28an**, junior mailako Superkopa, Valentzia, Valentziako Autonomia Erkidegoa.

Aurki hasiko dute txapelketa denboraldia taldeko junior, kadete eta ianfantilek eta gogor ari dira lanean hitzordu garrantzitsuak prestatzeko.

Hori dela eta, entrenamenduekin hasi baino lehen, abuztuko azken astean Euskadiko Judo Federazioak Zarautzen antolatutako entrenamendu saioetan izan ziren judo taldeko kideak.

Kirol instalazioetan neguko ordutegia dago martxan

2025eko ekaina amaiera arte egongo da indarrean ordutegia kiroldegian, igerilekuan zein kirol gunean

Txintxarri


Iraila hastearekin batera, Lasarte-Oriako kirol instalazioak neguko ordutegiarekin hasi dira martxan. 2025eko ekainaren 30a arte Maialen Chourraut kiroldegiko, igerilekuko zein Michelin kirol guneko irekiera orduak gogoratu ditu udal kirol zerbitzuak.

Astelehenetik ostiralera 07:00etatik 22:30era irekia egongo da Maialen Chourraut kiroldegia, larunbatetan 09:00etatik 20:00etara, eta, igande zein jaiegunetan 09:00etatik 13:00etara.


Kiroldegian dagoen igerilekuak, aldiz, astelehenetik ostiralera etena izango du eguerdian, 12:30etik 14:00etara eta 21:30ean itxiko ditu ateak. Larunbatetan 13:00etatik 16:00etara ezingo da erabili eta 20:00etan amaituko da eguna. Igande zein jaiegunetan goizez bakarrik egongo da erabilgarri 09:00etatik 13:00etara.

Michelingo kirol gunea astean zehar 15:00etatik 22:30era egongo da irekia. Larunbatetan 09:00etatik 20:00etara eta igande zein jaiegunetan 09:00etatik 13:00etara.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Beñat
Zorionak Beñat!!! Zein musika ederra duen bizitzak, gure ondoan zaudenean.

Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri, jaioberri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitatekoak

Internet

· txintxarri.eus/
zorianagurra.
· Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzaileak ez baduzu izena eman.
· Zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

· Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta nahi duzun testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK
ARTE JASOKO DITUGU

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 13	LASA
LARUNBATA, 14	GIL
IGANDEA, 15	GIL
ASTELEHENA, 16	DE ORUE
ASTEARTEA, 17	ACHA-ORBEA
ASTEAZKENA, 18	URBISTONDO
OSTEGUNA, 19	GANDARIAS-URIBE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00
DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flaquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

ESKERTZA

Maria Pilar Mendiluce Goñiren familiaren eskertza

Maria Pilar Mendiluce Goñiren familiak bihotzez eskerrak eman nahi dizkie beraiengana doluminak ematera eta elkertasuna adieraztera etorri diren guztiei.

OHARRAK

Udako Txokoetako galdutako gauzak

Ttakun Kultur elkarteak antolatutako Udako Txokoetan haurren arropa eta hainbat tresneri jaso zituen. Gurasoeren batek zerbait faltan bota badu, hilaren 16tik 20ra Ttakun Kultur elkartearen, bulegoko ordutegian, bildutako gauza guztiak ikusgai izango dituzte.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Denda saltzen dut. Okendo plaza dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

ERRENTA

Bi neska gazte gara eta pisukide baten bila gabilta. Etxea Zabaletako auzoan dago. 200 euro dira logelaren prezioa gehi gastuak aparte. Interesatu bazaude idatzi edo deitu telefono honetara: 663 93 51 76.

GARAJEA

ALOKATU
Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsalde deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA
33 urteko gizona lan bila dabil. Tabernan, sukaldean, garbiketa lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozen lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostein etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.



Jaio da!

Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

Argitaratzaileak

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaileak:

Egoitz Epelde, Ander Hazas, Aimar Hernandez, Nora Navarro, Xuban Urdalleta eta Nikola Iraola.

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

IGANDEA 15

LASARTE-ORIA Bertsolaritza
Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final zortzirenetako bat jokatu dute. Aitor Zubikarai, Amaia Iturriotz, Aner Peritz, Iñigo Mantzizidor, Manu Goiogana eta Oier Etxeberria ariko dira bertsotan. Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atari digitaletan dituzte eskuragarri bertsoszaleek.

Manuel Lekuona Kultur Etxea, 17:00etan.

LARUNBATA 28

LASARTE-ORIA Ospakizuna
Ostadar Ipar Martxa taldeak 10. urteurrena ospatzeko jardueraz betetako egitarau ederra iragarri du; hauek dira egun honetarako iragarri dituen ekimenak:
09:00etan, ibilaldia Okendo plazatik abiatuta.
11:00etan, hamaiketakoa.
13:00etan, Aurrekua Erketz Dantza Taldearen eskutik, Okendo plazan.
13:15ean, trikipotea.
14:15ean, bazkaria. Bertaratu nahi dutenek tiketak erosi beharko



LASARTE-ORIA Ospakizuna

10 urte bete ditu Ostadar Ipar Martxa taldeak, eta ibilbide hori herritarrekin ospatzeko asmoz, egun osoko egitaraua antolatu du hilaren 28rako. Horien xehetasunak agenda honetan kontsulta ditzakezue.

Herriko zenbait tokitan.

dituzte; Ostadar SKTn edo Buenetxea edo Arkupe tabernetan.

15:30ean, Earra bertso eskolako kideen emanaldia.
16:00etan, Intza Alkain eta Bea Egizabalen umore saioa.
17:00etan, Porrotz eta Bizipozaren Kantukolore.
18:00etan, Ipar Martxa eta kirol egokitua dantzan.
18:30ean, Elektropottotte taldearen emanaldia.

19:30ean, Denboraz kanpo taldearen kontzertua.

20:00etan, Auskalo taldearekin erromeria.
Herriko zenbait lekutan, 09:00etatik aurrera.

URRIAK 1

LASARTE-ORIA Jaia
Urria hastearrekin batera, Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramane ohi

dute herriko adinekoek. Aurtengorako ere, urriaren 1etik 8ra arteko egitarau oparoa prestatu dute. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

12:00etan, bandera igoera.

16:00etan, tute eta mus txapelketa.

Biyak Bat egoitza, 12:00etatik aurrera.

URRIAK 2

LASARTE-ORIA Jaia
Urria hastearrekin batera, Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramane ohi dute herriko adinekoek. Aurtengorako ere, urriaren 1etik 8ra arteko egitarau oparoa prestatu dute. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

16:00etan, toka eta igel bote txapelketa.

19:00etan, Los Gavilanes taldearen kontzertua Manuel Lekuona Kultur Etxean.
Herriko zenbait lekutan, 16:00etatik aurrera.

URRIAK 3

LASARTE-ORIA Jaia
Urria hastearrekin batera, Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramane ohi dute Lasarte-Oriako adinekoek. Aurtengorako ere, urriaren 1etik 8ra arteko egitarau oparoa prestatu dute. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

16:00etatik aurrera, bingo txapelketa.

20:00etan, sari banaketa.
Biyak Bat egoitza, 16:00etatik aurrera.

URRIAK 4

LASARTE-ORIA Jaia

Urria hastearrekin batera, Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramane ohi dute herriko adinekoek. Aurtengorako ere, urriaren 1etik 8ra arteko egitarau oparoa prestatu dute. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

11:00etan, Ondo ibilaldia Okendo plazatik abiatuta.

12:00etan, luntxa ibilaldian parte hartu dutenentzat.

17:00etan, bideo foruma Biyak Bat egoitzan.

Herriko zenbait lekutan, 11:00etatik aurrera.

URRIAK 5

LASARTE-ORIA Jaia

Urria hastearrekin batera, Adinekoen Omenaldi Astea aurrera eramane ohi dute herriko adinekoek. Aurtengorako ere, urriaren 1etik 8ra arteko egitarau oparoa prestatu dute. Hau da egun honetarako iragarri dituzten jarduerak:

09:30ean, ibilaldi neurtua Okendo plazatik abiatuta.

18:00etan, dantzaldia Niko DJren eskutik.
Herriko zenbait lekutan, 12:00etatik aurrera.

argazki lehiaketa

TXINTXARRI ALDIZKARIA



txintxarri

txintxarri@ttakun.eus
646 82 44 66 (WhatsApp)
txintxarri.eus/lehiaketa

2 U
0 D
2 D
4 A



Epaimahai saria **aldika** produktu bereziak

Bozka gehien saria **erriGora**

Euskara
eroso
bizitzeko

aek
euskara praktikoa

MATRIKULAZIOA ZABALIK

- Maila guztiak: A0, A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- AURREZ AURREKO ESKOLAK (tutoretzak)
- AUTOIKASKUNTZA
- AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATZEKO IKASTAROAK
- GURASO TALDEAK (ikastetxeen bidez)
- JUBILATUENTZAKO TALDEAK
- HOBEKUNTZA TALDEAK.

eman izena!
irailaren 24ra arte

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA
Maila egiaztatuz gero

LASARTE-ORIAKO
UDALA
%85 asistentziarekin,
matrikularen %85



aek
euskara praktikoa

**Muntteri AEK
euskaltegia**

Geltoki kalea 17 Lasarte-Oria | 607 62 52 33 | lasarte@aek.eus Bulego ordutegia: 10:00-13:00 / 17:30-20:00

HEZITZAILE lan poltsa



AURTENGO PROGRAMAK
DISEINATZEN ARI GARA.
GUREKIN LAN EGIN NAHI
BADUZU BETE
FORMULARIOA:

labur.eus/hezitzailelanpoltsa



Lasarte-Orian bi euskaltegi hauek dituzu

**2024
2025
ikasturtea**

EUSKARA IKASTEKO BEKAK



Lasarte-Orian erroldatua bazaude,
Udalak euskara ikasteko ematen
dituen bekak eska ditzakezu.

Udal Euskaltegia

- 📍 Bekokale bidea 1
- 📞 943 361 621
- ✉ euskaltegia@lasarte-oria.eus

Matrikulazio-epaia
irailaren 2tik 20ra

Muntteri-AEK Euskaltegia

- 📍 Geltoki kalea 17 - behea
- 📞 607 625 233
- ✉ lasarte@aek.eus

Matrikulazio-epaia
irailaren 2tik 24ra

! Ikastaroa Lasarte-Oriatik kanpoko euskaltegi edo barnetegiren batean egiten baduzu ere eska dezakezu.



Informazio gehiago:
Euskara Zerbitzua

- 📞 943 376 184
- ✉ euskara@lasarte-oria.eus